



'Santu Kulturalak Euskal Herrian'

Laida Ikerketa Taldeko kidea den Jon Kortazar idazle eta irakaslearen ardurapean, 'Santu Kulturalak Euskal Herrian' hitzaldi zikloa antolatu da Bizkaiko Foru Liburutegian, urrian eta azaroan

Laida Ikerketa Taldeak kultura eta literatura eta bien arteko eraginak ikertzen ditu batik bat. Bere ikerketa-eremuak literatura-genero nagusiek euskal hizkuntzan izandako garapena, edota gaikako generoak dira, tartean, nobela beltza edo polizia-nobela, euskal literaturaren eta futbolaren arteko harremana, albuma adierazpen literario eta artistiko gisa, eta abar.

Kideen espezializazio-alorrak askotarikoak diren arren, lotura sendo bat topa daiteke: alde batetik, teoria partekatuta bat; eta bestetik, Laida Ikerkuntza Taldeak jorratzen dituen gai-alorrak. Horrexegatik, taldeak ibilbide luzeko ikertzaileak eta gazteagoak direnak biltzen ditu, eta batzuek eta besteek taldeari esperientzia eta freskotasuna eskaintzen dizkiote. Taldean daude, besteak beste, Asier Barandiaran Amarica, Amelia Benito del Valle Eskauriaza, María del Mar Boillos Pereira, Xabier Etxaniz Erle, Miren Gabantxo Uriagereka, Iratxe Larrea Príncipe, Aiora Sampedro Alegría... eta geroago aipatuko ditugun adituak, hitzaldiak eman dituztenak.

Diogun moduan, aurreko aste-etan, sei astelehenetan, *Santu Kulturalak Euskal Herrian* izenburuko hitzaldi zikloa garatu da Bizkaiko Foru Liburutegian. Zikloaren nondik norakoak Jon Kortazarrek berak eman dizki-gu: "Mendebaldeko gizarteek, erlijiotik urruntzen joan diren heinean, santutasun laikoak bilzteko beharra nabarmendu du-te, erlijioaren moduan beste era batera adierazi. Horregatik lehenago erlijioko santuek betetzen zuten tokia osatzen dute Santu Kulturalak gizarte laiko batean.



Horregatik, Santu Kulturalak beste eragin bat du gure gizartearen eta identitate kolektiboaren sortzaile gisa ageri da. Horregatik, kontuan hartzeko da aipatu dugun bakoitzean, Santu Kultural gisa aipatutakoak ikertzea botere legitimoaren eta literaturaren artean sortzen diren loturez hitz egitea dela (...). Interesgarria da Santu Kulturaleri buruzko azterketa eta hausnarketa egitea, besteak beste, garenaz, ginatekeenaz eta gure izaeraz hitz egiten delako Santu Kulturalak aipatuz".

Hitzaldi-zikloa astelehenero egin da. Lehen hitzaldian (urriaren 21ean) Jon Kortazarrek azal-

du zuen zer diren Santu Kulturalak, izen bereko hitzaldian, nola ageri den beren itzala eta literatura aztertzeko bide berri hauen nondik norakoak nabarmenduz.

Hurrengo astean, urriak 28, *Jose Maria Iparragirre. Euskal Antzerkiak* emandako irudia izeneko hitzaldia burutu zuen Karlos del Olmo adituak. Bertan, Iparragirreraren figura nola ikusi den euskal teatroan aztertu zuen, eta hasierako heroi nazionalaren irudia nola joan den kritikatzan eta ahultzen ulertzeko gakoak eman zituen.

Azaroan lehen hitzaldian, Paulo Kortazar aditua *Xabier Lizardi: heriotzako orduan* izeneko gaiaz

mintzatu zen. Idazleen heriotzak beti izaten du eragin emozional bat, eta omenaldi gisa hartu ohi du gizarteak. Kasu honetan, poetaren heriotzak garai hartako euskal prentsan izan zuen inpaktua aritu zen. Hau da, Lizardi-aren heriotzak sorturiko poetaren irudia marraztu zuen adituak.

Azaroaren 11n, Jon Kortazarrek jorratu zuen *Esteban Urkiaga, Lauaxeta: bizitza eta lana* gaia. Horren inguruan, euskal erakunde politikoek Lauaxetaren itzala nola gorde duten ikusi zen, eta poeta nola bihurtu den euskal talde politiko guztientzako aipagai ere nabarmendu zuen adituak.

Azaroaren 18an, *Gabriel Aresti irudietan* izeneko hitzaldia egin zuen Susana Jodrak, Gabriel Arestiri eskaini zaizkion eskulturrak eta irudiak zertan diren azaltzeko.

Azkenik, azaroaren 25ean, *Mikel Laboa eta Xabier Lete: Santu*

Kultural bi aurrez aurre izeneko gaia jorratu zuen Jon Martin adituak, prentsak bi kantari hauei eskaintako tratamendua aztertzeko.

Jon Kortazarrek azaldu duen moduan: "Ikuspegi pedagogikoa oso kontuan hartuko dugu eta eskolan egin dezakegun erabilerari begira egingo dugu, horregatik oso garrantzikoak izango dira hitzaldietan argazkiak, bideoak, irudiak eta eskolan erabiltzeko material aurkezpenak. Gure helburuak dira, bada, idazleek kalean duten itzala agertzea eta *Paisaia literarioaren* indarra azpimarratzea, herriaren eta literaturaren arteko zubia eraikitzea".

Iragan ekañean literaturako zenbait aditu bildu ziren Bilbon bertan, Santu Kulturalak duten eraginez hitz egiteko. Hartan, zuzenki aztertzen zuten: Bizenta Mogel, Jose Maria Iparragirre, Xabier Lizardi, Esteban Urkiaga Lauaxeta, Gabriel Aresti, Lete eta Laboa. "Sei-zuzen horien artean bat gure Santu Kultural bakarra aukeratzeko arazoak izango genituzke", dio Kortazarrek. "Garai batean Iparragirre ezinbesteko eta miretsirik egilea zen. Gaur egun ez da horrela. Ez dugu bakar bat, gure nazio irudia ere, anforaren antzera, hautsia delako. Ez bagara akort jartzen gai nagusitan, ez gara akort jarriko idazle kontuetan".

Orain, Santu Kultural horiek hobeto ezagutzeko, eta beren figuraren gainean hausnartzeko antolatu da aipaturiko *Santu Kulturalak Euskal Herrian* hitzaldi zikloa, Bizkaiko Foru Liburutegiko Hitzaldi Aretuan, "besteak beste garenaz, ginatekeenaz eta gure izaeraz hitz egiteko".

Juanra Madariaga

Santu Kulturalak "besteak beste garenaz, ginatekeenaz eta gure izaeraz hitz egiteko"